

## **Bizkaieraren irudiaz**

**Iñaki Gaminde**

Dpto. de didáctica de la Lengua  
y la Literatura.

UPV/EHU.

### **LABURPENA**

*Bizkaieraren gainean Unibertsitateko ikasleek daukaten irudia eta iritzia ikertzea da lan honen helburua. Horretarako euskalki honetan eta batuan grabatutako testu batzuk erabili dira; testuak etxeko euskaran, bizkaiera literarioan eta batuan jaso ziren. Behin ikasturte bitan ikasle batzuei entzun eraginez gero, testu egileen gaineko iritzia eskatu zitzaaien zeharkako metodoa erabiliz. Esperimentu honen bidez ahotsak mintzatzailearen ezaugarriak irudikatzean daukan garrantzia ikertzea zela lanaren helburua esan bazen ere, interesatzen zitzaiguna euskara mota bakoitzak ezaugarri horietan eduki dezakeen eragina aztertzea izan zen.*

**Hitz gakoak:** Soziolinguistika, bizkaiera, jarrerak

### **RESUMEN**

El objetivo de este trabajo es investigar la imagen y opinión que tienen los alumnos universitarios sobre la variedad vizcaína del euskera. Con ese propósito se han utilizado una serie de textos en este dialecto y en la variedad estándar de la lengua; los textos se recogieron en tres registros variedad vernácula, vizcaíno literario y euskera unificado. Las pruebas se han hecho en dos cursos, una vez de completar la audición de los textos, utilizando un método indirecto se pedía la opinión de los alumnos con respecto a aspectos relacionados con la personalidad y características de los locutores. Por medio de este experimento se planteaba como objetivo señalar la importancia de la voz en la recreación de la imagen que cada uno hace del locutor, aunque realmente lo que nos interesaba era comprobar cual es la relación que existe entre variedad lingüística y las características que se asocian con ellas.

**Palabras clave:** Sociolingüística, dialecto vizcaino, actitudes

Para hacer referencia de este artículo:

Gaminde, I. (2007). Usos didácticos del wiki en educación secundaria. *Ikastorratza, e-Revista de Didáctica 1*. Retrieved 2007/12/1 from [http://www.ehu.es/ikastorratza/1\\_alea/bizkaiera.pdf](http://www.ehu.es/ikastorratza/1_alea/bizkaiera.pdf) (issn: 1988-5911).

## 1. Sarrera

Lantxo honen helburua Bizkaieraren gainean Unibertsitateko ikasleek daukaten irudia eta jarrera aztertzea izan da; zehatzago adierazita, Bilboko Irakasle Eskolako ikasleek daukatena. Hau ez da honezaz egiten den lehen lana, orain dela urte batzuk Amorrortu (2001) lagunak plazaratu zuen berau baino sakonagoa zen lana. Hala ere, bere emaitzak eta norberaren intuizioa ez zetozen bat; horregatik erabaki nuen, olgetan-benetan, nire honi ekitea. Baliteke, bestalde, emaitzak bat ez etortzea egoera aldatu delako, urte batzuk joan dira berak bere datuak jaso zituenetik hona, edo beste barik, metodologia bat ez delako izan. Zeharka bada ere, Maiak (2001) eta sakonago bere tesian, arazo honekiko lorratz batzuk ere ematen ditu.

Gaur egungo Bizkaian euskara egiten da Lanestosatik Ondarroaraino; euskararen ezagutzan ezin ukatuzkoa da eremua zabaldu dena. Era berean, bizkaiera edozein lekutan eta gizartearen edozein esparrutan topatzen dugu (gazteen, unibertsitarioen, zaharren, umeen, eta abarren artean); lanbideari dagokionez ere, edozein esparrutan topa ditzakegu bizkaieradunak. Hala ere, eta ondorengo lerroetan erakutsiko den moduan, gazteen artean oraindino diraute aspaldiko estereotipo batzuek bizirik.

Lantxo hau hiru ataletan banatuta aurkezten dugu. Bigarren atalean datuak jasotzeko erabili dugun metodologia aurkeztuko dugu. Hirugarren atalean datuak eta euron azterketa emango dugu. Azkenik, laugarren atalean ondorioak laburbiltzen ahaleginduko gara.

## 2. Metodologia

Datuak jasotzeko erabili den metodologia erraza izan da; sarreran aipatutako moduan, zortzi informatzaileraren testu laburrak jaso genituen. Informatzaile horietariko bik erregistro edo hizkuntz aldaera bi erabiltzen dituzte eta gainerakoek bakoitzak ondoen iritzi dion barietatea darabil. Denetara testuetan erabiltzen diren hizkuntz ereduak hiru taldetan sailka ditzakegu: Etxekoa (E), Bizkaiera estandarra edo literarioa (BL) eta euskara batua (B). Testuak, erantzuleek entzun zituzten erreskadan, honela banatuta daude:

Testua	Eredua	Testua	Eredua
1	B	6	E
2	BL	7	BL
3	B	8	E
4	E	9	B
5	E	10	E

1. Taula: Erabili diren testuak euskara motaren arabera

Testuak entzun ondoren, zeharkako metodoaren arabera, erantzuleei eskatu zitzaizen datu batzuk adierazteko, beti ere euren pertzepzioaren arabera. Testu bakoitzeko honako honen moduko erantzun orria eman zitzaizen:

Adina	15-20		21-30		31-40		41-50		51-60					
Ama-hizkuntza			Bizilekua											
Euskara		Gaztelania		Hiria		Herri handia		Herri txikia						
Galdera					bajuena			altuena						
1 Euskararen maila					1		2		3		4		5	
2. Euskararen egokitasuna					1		2		3		4		5	
3. Ikasketa maila					1		2		3		4		5	

Beraz, hizkuntzaren gainekeo estatusa neurtzeko erabili genituen itaunak adina, ama-hizkuntza, bizilekua eta ikasketa maila izan dira. Horrekin batera testu egilearen euskara maila neurtzeko itaun bi erabili ziren, hots, maila eta egokitasuna. Estatusa neurtzeko erabili ziren itaunen arabera gure informatzaileen ezaugarriak emango ditugu jarraian. Ama hizkuntzak euskara (e) edo gaztelania (g) izan dira. Adin taldeak bertan zehazten direnak dira. Bizilekuari dagokion itaunaren erantzuna nahikoa subjektiboa da, izan ere, hiria, herri handia eta herri txikia mugatzea ez da erraza beste barik; edozelan ere, badirudi prestigiodunagoa dela hiria (h) edo herri handia (hh) herri txikia (ht) baino. Informatzaileen benetako ikasketa maila adierazteko erabili dugun eskalan, 1 oinarrizko bigarren hezkuntza litzateke, 2 batxilergoa, 3 diplomatua izatea, 4 lizentziatua eta 5 doktorea. Hona hemen gure informatzaileen ezaugarriak hortaz:

<b>Informatzailea</b>	<b>Eredua</b>	<b>Ama Hizk.</b>	<b>Adina</b>	<b>Bizilekua</b>	<b>Ikas. maila</b>
<b>1</b>	(E eta B)	euskara (e)	16 (15-20)	Bilbo (h)	1
<b>2</b>	(BL eta B)	euskara (e)	59 (51-60)	Derio (hh)	5
<b>3</b>	(B)	gaztelania (g)	22 (21-30)	Barrika (ht)	3
<b>4</b>	(E)	euskara (e)	48 (41-50)	Bilbo (h)	3
<b>5</b>	(B)	euskara (e)	23 (21-30)	Bilbo (h)	2
<b>6</b>	(B)	euskara (e)	21 (21-30)	Gernika (hh)	3
<b>7</b>	(BL)	euskara (e)	25 (21-30)	Derio (hh)	4
<b>8</b>	(B)	euskara (e)	54 (51-60)	Bilbo (h)	5
<b>9</b>	(BL eta B)	euskara (e)	59 (51-60)	Derio (hh)	5
<b>10</b>	(E eta B)	euskara (e)	16 (15-20)	Bilbo (h)	1

**2. Taula:** Eduki ditugun informatzaileen ezaugarriak

Testuen edukia ez zen bat izan denetan 1, 3, 4, 5, 6, 8 eta 10 testuetan lekukoek leku batetik bestera joateko azalpena eman zuten. 2. eta 9. testuetan istoriotxo bana kontatzen du lekuko berak. Azkenik 7. testuan berri bat irakurri du esatariak.

Gorago esaneko moduan testaren erantzuleak Bilboko Irakasle Eskolako ikasleak izan dira. Proba 2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan egin da bigarren mailako ikasleen artean. Denetara 70 erantzun jaso eta aztertu dira. Ikasle guztiak bizkaitarrak dira. Euren adinak 18 eta 32 urte bitartekoak dira; hiru adin talde egin dugu, (1) 18-22 urte artekoa, 52 ikasle (% 74,29); (2) 23-27 urte artekoa, 8 ikasle (% 11,43) eta (3) 28-32 urte artekoa, 10 ikasle (% 14,29). Ikasleen lehen hizkuntzaren arabera, euskara daukate 22k (% 31,43) eta gaztelania 48k (% 68,57). Euren ikasketa ereduak dagokienez, gehienek (% 95,71) D ereduak ikasi dute eta hiruk (% 4,29) baino ez dute A ereduak ikasi. Azkenik, euren etorkiari begira, 27 ikasle (% 38,57) bizkaieraren betiko barrietateren bat bizi bizirik dagoen eskualderen batekoak dira eta 43 (% 61,43), ostera, bizkaieraren barrietateak galdu diren edo guztiz ahul dirauten eskualdeetakoak dira; azken datu hau interesgarria izan daiteke datuen analisirako.


### **3. Datuen azterketa**

Ikasleek emandako erantzunak aztertuko ditugu azpi-atal honetan, eurok islatzen dituzten joerak azalertzeko. Aurkezteko hurrenkera honako hau izango da, testua egin duenaren ama hizkuntza edo lehen hizkuntza, adina, bizilekua, ikasketa maila, euskara maila eta erabiliko euskararen ereduaren egokitasun maila. Datu guztiak testu egileek erabili duten barrietateen arabera sailkatuta emango ditugu, hots, etxeko ereduak (E), bizkaiera literarioa (BL) eta batua (B).

Testu egilearen ama hizkuntzari edo lehen hizkuntzari buruz erantzuleek uste dutena ondoko taula honetan biltzen da:


Testua	Euskara mota	euskara		gaztelania	
		zenb	%	zenb	%
1	B	6	8,57	64	91,43
2	BL	69	98,57	1	1,43
3	B	29	41,43	40	57,14
4	E	55	78,57	15	21,43
5	E	44	62,86	25	35,71
6	E	68	97,14	0	0
7	BL	35	50,00	34	48,57
8	E	69	98,57	1	1,43
9	B	29	41,43	41	58,57
10	E	29	41,43	40	57,14

3. Taula: Informatzaileen ustezko ama hizkuntza



1. irudia: Informatzaileen ustezko ama hizkuntza

Taulan eta grafikoan ikusten den moduan, euskara batua egitea norberaren ama hizkuntza gaztelania izatearekin erlazionatzen da, nahiz eta egiatan hiru horietatik baten ama hizkuntza baino ez izan gaztelania. Bizkaiera literarioaren eta etxeko ereduen emaitzak antzera agertzen dira. Lekuko bi errepikatuta daudenez gero, hau da, batek etxekoa eta batua erabiltzen du eta besteak batua eta eredu literarioa. Lekuko gazteenak lortu dituen emaitzak honako hauek dira; euskara batuan egiten duenean ama hizkuntza gaztelania dela uste dute % 91,43 erantzulek, haatik etxekoa egiten duenean % 57,14k. Errepikatuta dagoen beste informatzailearen emaitzak beste hauek izan dira, bizkaiera literarioan egiten duenean, % 1,43k uste du bere ama hizkuntza gaztelania dela, euskara batuan egiten duenean, ordea, %58,57k.




2. irudia: Informatzaile berberen euskara moten arabera desberdintasunak

Aurreko datu orokor horiek erantzuleen ama edo lehen hizkuntzaren arabera sailkatuta ematen ditugu ondoko taula honetan:

Test	E. m	Euskara				Gaztelania			
		Euskara		Gaztelania		Euskara		Gaztelania	
		zen	%	zen	%	zen	%	zen	%
1	B	5	22,73	17	77,27	1	2,08	47	97,92
2	BL	22	100,00	0	0,00	47	97,92	1	2,08
3	B	16	72,73	6	27,27	13	27,08	34	70,83
4	E	20	90,91	2	9,09	35	72,92	13	27,08
5	E	15	68,18	6	27,27	29	60,42	19	39,58
6	E	22	100,00	0	0,00	47	97,92	0	0,00
7	BL	14	63,64	7	31,82	21	43,75	27	56,25
8	E	22	100,00	0	0,00	47	97,92	1	2,08
9	B	15	68,18	7	31,82	14	29,17	34	70,83
10	E	15	68,18	7	31,82	14	29,17	33	68,75

4. Taula: Informatzaileen ustezko ama hizkuntza erantzuleen ama hizkuntzaren arabera

Datuak aztertuta, ama hizkuntza euskara daukatenen artean euskara batuan egiten dutenen % 54,55en ama hizkuntza euskara da, bizkaiera literarioan egitean portzentajeak gora egiten du % 81,82 eta etxekoa erabiltzen dutenen portzentajea altuena da % 85,45. Ama hizkuntza gaztelania daukatenen iritziz, berriz, batua egikeran ama hizkuntza euskara daukatenen portzentajea % 19,44ra jaisten da, bizkaiera literarioaren eta etxekoaren kasuetan portzentajeek gora egiten dute, % 70,84 eta % 71, 67. Ondoko grafikoan desberdintasunak erakusten dira:



3. irudia: Informatzaileen ustezko ama hizkuntza erantzuleen ama hizkuntzaren arabera


Desberdintasunik nabarmenenak batua erabiltzen denean gertatzen dira; bizkaiera literarioa eta etxekoen artean desberdintasun handirik ez dagoen artean, ama hizkuntza gaztelania daukatenen iritziz euskara batua hizkuntza ikasi izanarekin lotzen da kasu gehienetan.

Erantzuleen adinaren arabera sailkatzen baditugu emaitzak honako taula hau osa dezakegu (bertan euskara ereduaren arabera ama hizkuntza euskara izatearen portzentajea baino ez dugu ipini)

Euskara mota	1	2	3
B	28,85	37,5	33,33
BL	73,08	81,25	80
E	73,46	85	80

5. Taula: Informatzaileen ustezko ama hizkuntza erantzuleen adinaren arabera

Desberdintasun handirik ez dagoen arren, badirudi gazteenen artean joera handiagoa dagoela euskara batua ama hizkuntza gaztelania izanarekin identifikatzeko, zaharxeagoen artean baino.




4. irudia: Informatzaileen ustezko ama hizkuntza erantzuleen adinaren arabera

Erantzuleen eskualdeetan eduki dezaketen bizkaierarekiko erlazioa islatzeko, jarraian tasun horren arabera emango ditugu portzentajeak (1 bizkaieraren barietateren bat egiten deneko eskualdeek osatzen dute eta 2, oster, bizkaiera galdu edo ahul dagoeneko eskualdeena da)

Euskara mota	1	2
<b>B</b>	51,85	17,05
<b>BL</b>	81,48	69,77
<b>E</b>	81,48	72,09

6. Taula: Informatzaileen ustezko ama hizkuntza erantzuleen eskualdeen ezaugarri linguistikoen arabera



5. irudia: Informatzaileen ustezko ama hizkuntza erantzuleen eskualdeen ezaugarri linguistikoen arabera

Honaino testu egileen ustezko ama hizkuntzaren araberako emaitzak; argi ikusten denez, euskara batua ama hizkuntza gaztelania izatearekin lotzen da, are gehiago ama hizkuntza gaztelania daukatenen artean garaikoen artean baino.

Jarraian testu egilearen adinaren gaineko emaitzak emango ditugu; metodologiaren atalean adierazi dugun moduan bost adin talde egin dira erantzunak kokatzeko. Hona hemen testu mota bakoitzeko ustezko adinen batezbestekoen emaitza:

Zenbakia	Euskara mota	Adin taldea
<b>1</b>	<b>B</b>	1,23
<b>2</b>	<b>BL</b>	3,61
<b>3</b>	<b>B</b>	1,93
<b>4</b>	<b>E</b>	3,83
<b>5</b>	<b>E</b>	1,77
<b>6</b>	<b>E</b>	2
<b>7</b>	<b>BL</b>	2,97
<b>8</b>	<b>E</b>	3,9
<b>9</b>	<b>B</b>	3,47
<b>10</b>	<b>E</b>	1,46

7. Taula: Informatzaileen ustezko adina.

Gorago esaneko moduan, 1-10 eta 2-9 pertsona berberak dira testu mota bi egiten; taulan ikusten den moduan, baten kasuan etxeko euskararen egiten duenean zaharragotzat jotzen dute euskara batuan egiten duenean baino eta bestearen kasuan, berriz, bizkaiera literarioan egitean zaharragotzat jotzen dute euskara batuan egitean baino. Gatozen aztertzeraz zer gertatzen den datu horiekin erantzuleen ama hizkuntza, adina eta eskualdearen arabera. Erantzuleen ama hizkuntzaren arabera banatuta ondoko emaitzak dauzkagu:


Zenbakia	Euskara mota	Euskara	Gaztelania
1	B	1,32	1,19
2	BL	4,18	3,35
3	B	1,95	1,92
4	E	3,82	3,83
5	E	1,86	1,73
6	E	2,23	1,9
7	BL	2,95	2,98
8	E	4,27	3,73
9	B	3,77	3,33
10	E	1,59	1,4

8. Taula: Informatzaileen ustezko adina erantzuleen ama hizkuntzaren arabera.

Emaitzak erabilitako euskara moten arabera sailkatzen baditugu, honako taula hau daukagu:

	Euskara	Gaztelania
B	2,35	2,15
BL	3,57	3,16
E	2,75	2,62

9. Taula: Informatzaileen ustezko adina erantzuleen ama hizkuntzaren eta euskara moten arabera.



6. irudia: Informatzaileen ustezko adina erantzuleen ama hizkuntzaren eta euskara moten arabera.

Emaitzak bateratzen baditugu, ez dirudi erantzulearen ama hizkuntzagatik pertzepzioa aldatzen denik; oro har, gaztelaniadunek hiztun mota guztiak gazteagotzat jotzeko joera daukate.

Erantzuleen adinen arabera sailkatzen baditugu emaitzak honako taula hau osa dezakegu:

Zenbakia	Euskara mota	1	2	3
1	B	1,17	1,38	1,4
2	BL	3,5	3,75	4,1
3	B	1,92	2	1,9
4	E	3,77	4,13	3,9
5	E	1,71	2,13	1,8


6	E	1,96	2,13	2,1
7	BL	2,96	3	3
8	E	3,81	4	4,3
9	B	3,35	4	3,7
10	E	1,4	1,5	1,7

10. Taula: Informatzaileen ustezko adina erantzuleen adinaren arabera .

Lekukoek erabili duten euskara moten arabera, adin taldeetan ez da desberdintasun nabarmenik erakusten:

	1	2	3
B	2,15	2,46	2,33
BL	3,23	3,38	3,55
E	2,53	2,78	2,76

11. Taula: Informatzaileen ustezko adina erantzuleen adinaren eta euskara moten arabera.



7. irudia: Informatzaileen ustezko adina erantzuleen adinaren eta euskara moten arabera.

Azkenik, erantzuleen eskualdeen ezaugarrien arabera emaitzak banatuta honako hau daukagu:

Zenbakia	Euskara mota	+Bizkaiera	-Bizkaiera
1	B	1,32	1,19
2	BL	4,18	2,35
3	B	1,95	1,92
4	E	3,82	3,83
5	E	1,86	1,73
6	E	2,23	1,9
7	BL	2,95	2,98
8	E	4,27	3,73
9	B	3,77	3,33
10	E	1,59	1,4


12. Taula: Informatzaileen ustezko adina erantzuleen eskualdeen arabera .

Kasu honetan ere, ez dirudi inguruneko euskararen ereduak zerikusi handirik daukanik emaitza orokorretan, Bizkaiera literarioa erabiltzean agertzen den aldea da esanguratsuen:

	+ Bizkaiera	- Bizkaiera
B	2,35	2,15
BL	3,57	2,67
E	2,75	2,52

13. Taula: Informatzaileen ustezko adina erantzuleen eskualdeen eta euskara moten arabera.





**8. irudia:** Informatzaileen ustezko adina erantzuleen eskualdeen eta euskara moten arabera.

Metodologiaren atalean adierazi dugun moduan, testu egilearen bizilekua adierazteko eskatu zaie erantzuleei. Hiru aukera eman zaizkie, hiria (h), herri handia (hh) eta herri txikia (ht) hain zuzen. Orokorrean honako emaitzak jaso ditugu:

	hiria	hh	ht
<b>B</b>	42,86	53,06	4,08
<b>L</b>	21,48	34,07	44,44
<b>E</b>	21,86	39,52	38,62


**14. Taula:** Informatzaileen ustezko bizilekua euskara moten arabera .

Portzentajetan ikusten den moduan, euskara batua hiria eta herri handiekin lotzen da eta literarioa eta etxekoa, ostera, portzentaje handiagoan herri txikiekin. Emaitzak erantzuleen ezaugarrien arabera aztertuta, honako hau dugu:

Erantzuleen ama hizkuntzaren arabera sailkatuta goiko emaitzak, honako taula osa dezakegu:

	hiria		hh		ht	
	euskara	gaztelania	euskara	gaztelania	euskara	gaztelania
<b>B</b>	50	41,04	46,55	57,46	3,45	1,49
<b>L</b>	19,51	22,34	26,83	37,23	53,66	40,43
<b>E</b>	18,18	23,4	38,38	40	43,43	36,6

**15. Taula:** Informatzaileen ustezko bizilekua euskara moten eta erantzuleen ama hizkuntzaren arabera.




**9. irudia:** Informatzaileen ustezko bizilekua euskara moten eta erantzuleen ama hizkuntzaren arabera.

Datuak erantzuleen adin taldeen arabera sailkatuz gero, honako emaitzak lortzen ditugu:

	hiria			hh			ht		
	1	2	3	1	2	3	1	2	3
<b>B</b>	38,51	55	57,14	58,78	35	35,71	2,7	10	7,14
<b>L</b>	19,8	21,43	30	34,65	35,71	30	45,54	42,86	40
<b>E</b>	22,27	24,32	18	40,89	35,14	36	36,84	40,54	46

**16. Taula:** Informatzaileen ustezko bizilekua euskara moten eta erantzuleen adinaren arabera.




10. irudia: Informatzaileen ustezko bizilekua euskara moten eta erantzuleen adinaren arabera.

Azkenik, erantzuleen eskualdeen euskararen erabileraren arabera sailkatuta, honako hau dugu:

	hiria		hh		ht	
	+bizka	-bizka	+bizka	-bizka	+bizka	-bizka
<b>B</b>	42,47	43,09	50,68	54,47	6,85	2,44
<b>L</b>	17,65	23,81	29,41	36,9	52,94	39,29
<b>E</b>	18,55	23,81	38,71	40	42,74	36,19

17. Taula: Informatzaileen ustezko bizilekua euskara moten eta erantzuleen eskualdeen arabera.



11. irudia: Informatzaileen ustezko bizilekua euskara moten eta erantzuleen eskualdeen arabera.

Estatus soziala neurtzeko erabili dugun hirugarren ezaugarria testu egileen ustezko ikasketa mailarena izan da, horretarako batetik boatera puntuatu behar zen. Hona hemen emaitza absolutuak testuen arabera


Zenbakia	Euskara mota	Ikasketa maila
1	<b>B</b>	3,46
2	<b>BL</b>	3,64
3	<b>B</b>	4,04
4	<b>E</b>	3,23
5	<b>E</b>	3,71
6	<b>E</b>	3,77
7	<b>BL</b>	4,4
8	<b>E</b>	3,36
9	<b>B</b>	4,36
10	<b>E</b>	3,44

18. Taula: Informatzaileen ustezko ikasketa maila arabera.

Emaitzak erabiliriko euskara motaren arabera sailkatuta ondoko taulan batzen dira:

	<b>Ikasketa maila</b>
<b>B</b>	3,95
<b>BL</b>	4,02
<b>E</b>	3,5

19. Taula: Informatzaileen ustezko ikasketa maila euskara moten arabera.




12. irudia: Informatzaileen ustezko ikasketa maila euskara moten arabera.

Kasu honetan Bizkaiera literarioa eta etxeko euskara ez datoz bat, hots, ez dituzte emaitza bertsuak erakusten. Hala ere, etxeko euskara erabiltzen duenari ikasketa mailarik baxuena ematen zaio zatiez. Jarraian aurreko adierazleekin egin dugun moduan, emaitzak erantzuleen ezaugarrien arabera aurkeztuko ditugu. Erantzuleen ama hizkuntzaren arabera honako hau daukagu:

	<b>Ikasketa maila</b>	
	<b>euskara</b>	<b>gaztelania</b>
<b>B</b>	4,08	3,9
<b>BL</b>	3,77	4,14
<b>E</b>	3,48	3,52

20. Taula: Informatzaileen ustezko ikasketa maila euskara moten eta erantzuleen ama hizkuntzaren arabera.




13. irudia: Informatzaileen ustezko ikasketa maila euskara moten eta erantzuleen ama hizkuntzaren arabera.

Taulan ikusten den moduan, badira desberdintasun txiki batzuk batua eta literarioaren artean. Euskara ama hizkuntza daukatenen artean, ikasketa maila altuagoa ematen zaie batua erabiltzen dutenei literarioa erabiltzen dutenei baino. Gaztelania ama hizkuntzadunen artean alderantziz gertatzen da. Adinen arabera emaitzak sailkatuta honako hau daukagu:

	<b>Ikasketa maila</b>		
	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>
<b>B</b>	3,94	3,88	4,07
<b>BL</b>	3,96	4	4,37
<b>E</b>	3,51	3,42	3,52

21. Taula: Informatzaileen ustezko ikasketa maila euskara moten eta erantzuleen adinaren arabera.




14. irudia: Informatzaileen ustezko ikasketa maila euskara moten eta erantzuleen adinaren arabera.

Azkenik, erantzuleen jatorrizko eskualdeen ezaugarri linguistikoen arabera sailkatuz gero, honako hau dugu:

	Ikasketa maila	
	+ bizkaiera	- bizkaiera
<b>B</b>	4,02	3,91
<b>BL</b>	3,89	4,1
<b>E</b>	3,4	3,57

22. Taula: Informatzaileen ustezko ikasketa maila euskara moten eta erantzuleen eskualdeen arabera.



15. irudia: Informatzaileen ustezko ikasketa maila euskara moten eta erantzuleen eskualdeen arabera.

Testu egileen euskara mailari buruz galdetzen zaienean, euskara moten arabera honako erantzunak ematen dira:


	Euskara maila
<b>B</b>	3,86
<b>BL</b>	4,51
<b>E</b>	3,99

23. Taula: Informatzaileen ustezko euskara maila euskara moten arabera.

Ikusten denez, bizkaiera literarioa da ondoen baloratzen dena eta gero etxeko euskara. Etxeko euskaran egiten duen gaztearen kasuan etxekoan 3,33 ematen diote eta batuan 3,09. Bizkaiera literarioan eta batuan egiten duenaren emaitzak antzera gertatzen dira, bizkaiera literarioan 4,69 eta batuan 4,41. Erantzuleen ezaugarrien arabera sailkatzen baditugu emaitzak honakoak dauzkagu. Ama hizkuntzaren arabera:

	Euskara	Gaztelania
<b>B</b>	3,97	3,81
<b>BL</b>	4,59	4,48
<b>E</b>	4,15	3,92

**24. Taula:** Informatzaileen ustezko euskara maila euskara moten eta erantzuleen ama hizkuntzaren arabera.



**16. irudia:** Informatzaileen ustezko euskara maila euskara moten eta erantzuleen ama hizkuntzaren arabera.

Erantzuleen adin taldeen arabera emaitzak sailkatuta honako hau dugu:


	Euskara maila		
	1	2	3
<b>B</b>	3,84	3,79	4
<b>BL</b>	4,5	4,56	4,55
<b>E</b>	4	3,83	4,08

**25. Taula:** Informatzaileen ustezko euskara maila euskara moten eta erantzuleen adinaren arabera.

Azkenik, erantzuleen eskualdeetako ezaugarri linguistikoen araberako sailkapena eginik honako hau dugu:

	Euskara maila	
	+ bizkaiera	- bizkaiera
<b>B</b>	3,96	3,8
<b>BL</b>	4,57	4,48
<b>E</b>	4,07	3,94

**26. Taula:** Informatzaileen ustezko euskara maila euskara moten eta erantzuleen eskualdearen arabera.



**17. irudia:** Informatzaileen ustezko euskara maila euskara moten eta erantzuleen eskualdearen arabera.

Aztertu dugun azken adierazlea euskara motaren egokitasunarena izan da. Emaitza absolutuetan honako hau dugu


	Egokitasuna
<b>B</b>	3,89
<b>BL</b>	4,29
<b>E</b>	3,68

**27. Taula:** Informatzaileen ustezko euskararen egokitasuna euskara moten arabera.

Ikusten denez, bizkaiera literarioa da egokientzat baloratzen dena eta gero euskara batua. Emaiza hauek kontraesankorrak dira, izan ere, eredu bi erabiltzen duten lekuko kasuetan kontrakoa gertatzen da; hau da, etxeko euskara egokiagozat jotzen dute (3,14) batua baino (3,09) eta, beste kasuan, batua egokiagozat (4,5) literarioa baino (4,27). Erantzuleen ezaugarrien arabera sailkatzen baditugu emaitzak honakoak dauzkagu. Ama hizkuntzaren arabera:

	<b>Euskara</b>	<b>Gaztelania</b>
<b>B</b>	3,98	3,84
<b>BL</b>	4,36	4,25
<b>E</b>	3,7	3,67

28. Taula: Informatzaileen ustezko euskararen egokitasuna euskara moten eta erantzuleen ama hizkuntzaren arabera.




18. irudia: Informatzaileen ustezko euskararen egokitasuna euskara moten eta erantzuleen ama hizkuntzaren arabera.

Erantzuleen adin taldeen arabera emaitzak sailkatuta honako hau dugu:

	<b>Egokitasuna</b>		
	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>
<b>B</b>	3,85	3,71	4,23
<b>BL</b>	4,27	4,19	4,45
<b>E</b>	3,68	3,5	3,82

29. Taula: Informatzaileen ustezko euskararen egokitasuna euskara moten eta erantzuleen adinaren arabera.




19. irudia: Informatzaileen ustezko euskararen egokitasuna euskara moten eta erantzuleen adinaren arabera.

Azkenik, erantzuleen eskualdeetako ezaugarri linguistikoen arabera sailkapena eginik honako hau dugu:

	<b>Egokitasuna</b>	
	<b>+ bizkaiera</b>	<b>- bizkaiera</b>
<b>B</b>	3,96	3,84
<b>BL</b>	4,33	4,26
<b>E</b>	3,61	3,72

30. Taula: Informatzaileen ustezko euskararen egokitasuna euskara moten eta erantzuleen eskualdeen arabera.



20. irudia: Informatzaileen ustezko euskararen egokitasuna euskara moten eta erantzuleen eskualdeen arabera.

#### 4. Ondorioak

Ondorioetan orain artean ikusi ditugun joerak baino ezin aipatu daitezke, baina eurok interesgarriak izan daitezke aurrerantzean antzeko beste behar batzuk burutu ahal izateko. Erabili ditugun adierazleak hiru multzotan sailka ditzakegu, beti ere erabili diren testu moten arabera.

Orokorrean bizkaiera literarioa eta etxeko ereduen artean ez da desberdintasun handirik egiten, euskararen maila eta egokitasunaren kasuetan izan ezik.

Euskara batua ama hizkuntza gaztelania izatearekin lotzen da askoz kasu gehiagorekin euskara izatearekin baino. Honek esan gura du euskara batua ez dela ikusten kultura eredu moduan edo normalizazioaren eredu moduan, ezperez euskalduntzeko erabiltzen den eredutzat. Estatusari dagokionez, ostera, euskara batua egitea gazteago, hiritarrago eta ikasketa maila altuagoa edukitzearekin identifikatzen da. Aitzitik, kontradikzio gisa ulertu beharko genuke, estatusa holakoa den artean, euskararen maila eta egokitasuna ez identifikatzea berorrekin.

Badirudi ezen, gure gizartean aspaldiko estereotipoak ez direla oraindik ezabatu, hau da, euskara maila ona daukate bizkaiera dakitenek nahiz eta zaharrak izan, herri galduetan bizi izan eta ikasketa maila baxukoak diren. Ederra kontua!!

#### Bibliografia

**Amorrortu, Estibaliz** (2001) "Unibertsitate-ikasleen euskalki eta batuarekiko jarrerak" in Mendebalde Kultura (2001) *Alkartea: Euskalkia eta Hezkuntza*. Bilbo.

**Maia, Julian** (2001) "Eskola eta tokian tokiko hizkuntz aldaera" in Mendebalde Kultura (2001) *Alkartea: Euskalkia eta Hezkuntza*. Bilbo.